

uribitakora > alde egin, ahal duzun bitartean!



Getxo, 2014ko martxoa

Testua: **Galder Bilbao Martinez "Txapi"** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* *Doinua: Lide txikia Hodel handia*

Garai batean leku horretan
lasai zegoen ardia,
baina orain dugu metal ugari
hesia ta garabia.
Etxeak dantzan han eta hemen
horma gris eta zuria,
teillatu ilunak leiho gehiegi
ezkutatuta gurdia;
aurrean dugu gustuko ez dugun
koloreen irudia.

Oroitzapenak atzera bota
ta irudia imajina;
baserriarrek ortua zuten
eginez lan oso fina.
Eskasa da orain erakusten den
lurrarekiko lan-grina,
dena daukagu zementoarekin
bustirik eta zikina;
Uribe Kosta inolz izan zen
berdea eta birjina!

Piura hauxe dugu gaur egun
gure herrietako plaza,
Udalak lurra salduz gainera
ta diru bueltan jasa.
Osasuntsua ez da izango
ez dauka honek ona traza,
"zurekoltasuna" da nagusi
Ama Lurrataz be pasa;
burni-zizarea ere badabil
bilatzen non hartu arnasa!

Urbibitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egloguz atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

Cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita
BEZ sartuta





Info+: www.mintzanet.net

berbalagunak sarean > mintzanet.net

Euskaraz berba egiteko sareak eskaintzen digun ekimena da mintzanet gunea. Jatorrizko Getxoko Joserra Onandia berbalagunak emon digu honen barri; bertako parte-hartzaile da orain dela urte eta erdi eta "oso interesgarria, oso ondo" dagoe-la pentsatzeaz gainera, ahalik eta zabalkunde handiena behar duela eta erabiltzera gonbidatzen gaitu. Munduko edozein txokotatik internet bidez euskaraz hitz egite-

ko aukera eskaintzen du, bakoitzak adostutako egun-orduan. Batetik, euskara ikasten edo berreskuratzen dabiltzanei (bidelariak) praktikatzeko aukera zabaltzen die; bestetik, horiei laguntza luza diezaiekete euskaraz "ondo jantzitakoek" (bidelagunak), horietako gitxi ei daude. Donostiako Udala, Gipuzkoako Aldundiak eta Jaurlaritzak bultzatu eta Topaguneak eta Etxepare Institutuak babesten dute. ○

irakurzaleen txokoa > Garbiñe Ubeda

UKITen (Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak) martxoko hitzordua hilaren 27an, eguena, izango da, 19:30ean, Villamonte kultur etxean (Algorta). Martxoko literatura-berbaldi eta osteko eztabaidarako Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967) gonbidatu dute, fikzioaren esparruan estreinako lana duen *Hobe isilik* (Elkar, 2013) nobelaz jarduteko. Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Augustin Zubika-

rai beka-saria jaso zuen, oraindik proiektu zela, lan hori idazteko Tolosako kazetariak. Hauxe *Hobe isilik*-en trailerra zitekeena: "1936ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantzia desagertutako Jose Bermejo aitona miliziano anarkistaren arnastoaren bila hasten da haren biloba Bakartxo..." Eta bide horretan "hainbat gogoeta: sekretuez, isiltzeaz, bizitza berri bat hasteaz, zaharra ahazteaz..." ○



Garbiñe Ubeda (Tolosa, 1967)



Info+: www.breakonstage.com

jaialdia > kultura urbanoen erakusleihu

XIV. ekitaldia beteko du hilaren 29an Bilbao Arenan (Miribilla, Bilbo) egingo den *BreakOnStage* Nazioarteko Kultura Urbanoen jaialdiak. 19:00etan hasiko da ikuskizuna: "ordu bian, inupen laburreko 20 ikuskizun taulanatuko dina; jaialdian, nazioartean kultura urbanoaren erreferente bihurtu diren hainbat artista bilduko dira: breakdance-aren alorrean *The Ruggeds* (Holanda), *Inesteam* (Frantzia), *Rst Crew*

(Espainia); *Poe One break* (Los Angeles) dantzari mitikoa epaile lanetan eta ikuskizuna eskaintzen; *Kaynix* (Suedia) dantza-urbano talde famatua, *Chey* dantzariaren show berriaren estreinaldia; *Dirt Jump* bizikleta-jauzi lehiaketa egongo da; *kale-dantza taldeen lehiaketa e.a.* Amaitzeko, Rayd hip-hop musikariaren kontzertua iragarri dute. Sarrerak aurretik 10 euro eta leihatilan 12 euro balio du. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tl. (+34) 943 140 143